



TILiren KALITATE POLITIKA

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak duen Kalitate Politikak bere XIBean du iturburua.

Horrela dio gure Xedearen atal batek: *“Bere kudeaketarako, Kalitate osoa eta Bikaintasunaren oinarriak ontzat hartzen dituen eta **etengabeko hobekuntzan eta legeak markatzen dituen eskakizunak betetzen konprometituta dagoena**”.*

Eta, era berean, horrela aipatzen da gure Ikusmiran:

*TILiren asmoa, osasun eta gizarte arloan kalitatezko prestakuntza ematen duen zentrotzat hartua izatea da. Gure ikaslearen lan munduratzeko ziurtatzeko, bere **ibilbide profesionala** garatzen ahalegintzen gara, **enprendizaia** eta ekimena sustatuz eta ikerketarako grina bultzatuz. Enpresek exigitzen dituzten konpetentzia digitalak eta hizkuntza konpetentziak sustatu nahi ditugu gure ikasleengan. Beraz, eleaniztasuna bultzatzen dugu, euskara gure lehentasunezko hizkuntza izango delarik.*

*Irakasleri konprometitua, ongi prestatutakoa eta ikasleekin hartu-eman estua eta zintzoa eskaintzen duena. Berriztatzaileak diren teknologiekin eta ingurumenaren babesarekin nahiz **jasangarritasunarekin** konprometitua dagoena. . **Kudeaketarako sistema integrala** garatu nahi dugu eta Eusko Jaurlaritzako **Euskal Agentziaren kolaboratzaileak** gera.*

Gure XIBa bi urteetan behin berrikusten da eta TILko lider guziek parte hartzen dute prozesu honetan. Gure XIBetik zuzenean sortzen da gure Estrategia, 4-5 urteetako Plan Estrategiko batean gauzatzen dena. Estrategia hau urtero despletatzen da Kudeaketa Planaren bitartez eta urtean behin ebaluatzen da azken Plan honi Zuzendaritza Taldeak egiten dion berrikusketari esker. Aldi berean, Kudeaketa Plana TILK´aren KKS dituen prozesuen bitartez burutuko da. Azken finean, prozesuak dira gure Estrategiak dituen helburuak beteko direla ziurtatzen duten arduradun nagusiak.

Data: 2020ko irailan
Berrikusketa zkia: 3

Zuzendaritza Taldea: Ana Monge